

# ASI NO NACIO ETA

TXILLARDEGI

La revista « Muga », en su primer número, publica un artículo de Carmelo Ibarzábal titulado «Así nació ETA». Jose Luis Alvarez-Emparanza, «Txillardegi», puntualiza sus desacuerdos en este artículo.

Uzkur joan nintzen lehengoan MUGA aldizkari berria erostera; baina zer ote zion jakiteko gogoz ere bai. Irakurleak ongi uler dezakenez, «Así nació ETA» izeneko artikulua kilikatzen ninduen gehienik: Alderdia-rén errebista batek azkenean ETA-ren sorrera eta fenomenoaz aldatu nahi. «Ongi da!».

Eta, egia esan, artikulua aurkezpenean datozen hitzak («conclusiones realmente sorprendentes») zuzen datoz: ni harrিতa utzi nau erabat. ETA horrela sortu bazan... sartu dedilla kalabazan!

Alde batetik, artikuluan ageri diren hutsak eta zehaztasunik ezak harritu naute. Godofredo de Bouillon-i buruz hitz egitean gutxi-gorabeherako azalpenak ematea, bego. Baina ETA-ri buruz horren gutxi-gorabehera mintzatzea, ez da normala. Hastapen haietan ibili ginen guztiok, zorionez edo zorigaitzez, bizi gara. Eta historia egin nahi bada (eta hauxe nahi bide du MUGA-k, burutzat historialari bat hautatu duelarik), zehaztasuna behar da.

«Ekin» taldea, esate baterako, gero ETA deitua, 1953-ko udaberrian jaio zen; eta Bilbon jaio zen. Isilpe-beharra zela-ta, bost lagunek sortu zuten, eta ez hamarrek edo hamazazpik. Bost izen horiek, mila lekutan emanak, baina ez MUGA-n, hauek dira: Gainzarain, J.M. Benito del Valle, Jose Manu Agirre, Julen Madariaga, eta hemen sinatzen duena. Aurreko hilabeteetan, eta ikas-lanetan bakarrik, beste pertsona batzu ibili ziren. Baina «Ekin» talde itxia, horrela sortu zen; eta



Alvarez Emparanza, Txillardegi.

tan, eta luzeago Ekin-en eta ETA-n gero egon.

Beste zehaztasun faltsu bat: «La mesa regional de Guipúzcoa formada por Txillardegi y Murua». Sekula ez da izan Ekin-en eta ez ETA-n bi pertsonak osatutako mahairik. Beti bospasei izaten ginen; eta hau maila guztietan. Sekula ez bi lagun.

1953 inguruan J.J. Recondo-rekin Paris-en Benito del Valle egon zela-ta, ez da xuxen; baina 1955-an ni bai izan nintzen, eta beharba-da horretaz ari da. Gauza bera Paris-en Agirre-rekin eta gainerakoekin izen genituen harremanez: «A finales del mes de abril de 1958 José Manu Agirre, Txillardegi y Benito del

eta «Ekin»ekoak kontrakoak. Alderdiak ba omen zuten «Eusko Naia» organizazioa («el PNV, además de órganos políticos, posee un brazo armado denominado Euzko Naia, formado por los antiguos jefes y oficiales del Ejército Vasco»); eta, bestetik, biolentziaren aldekoa bide zen («en 1960, es decir un año más tarde a la formación de ETA, Patxi Amezaga, Mikel Isasi, Iker Gallastegui y Borja Eskauriza, permanecerían dos meses en Irlanda, aprendiendo técnicas guerrilleras de manos del IRA»). Arte horretan, ETA-n zalantza besterik ez omen zegoen: «No tiene nada de extraño que en 1959 y 1960 se ponga a debate en el seno de ETA el problema de adoptar una decisión en torno al tema de la violencia». Hitz batez: biolentzia PNV-ak ekarri du, ETA-ko «gandizaleen» kontra; edo hor nunbait!!

Hots, behin eta berriz esan denez, «Eusko Gaztedi» izena aldatzearen karkoa, hain zuzen ere, biolentziara pasatzeko asmoak ekarri zuten: E.G.-ren inguruan zegoen saltsa (saltsa ikaragarria!) ez zen gauza ona ekintza gogorretan hasiteko. Muga garbiak behar ziren. Eta ETA-ko batzuk baja eman ziguten guri, aztarnak kentzeko. Hila denez gero, izan



Juanjo Etxabe, un histórico que llegó después

● «Nunca en Ekin ni en ETA, la presidencia ha sido asumida por dos personas. Prácticamente siempre, era un colectivo de seis o siete personas el equipo directivo».

ez bestela. Gurutz Antsola berehala erretiratu zen, Ramon Labaien edo beste batzu bezala; eta ez ziren lehenengo sailean egon. Gainzarain bera ere, dudarik gabe «Ekin» taldearen ideiarekin aita, erretiratu egin zen; eta gauza bera Alfonso Irigoien. Inaki Larramendi, Rafa Albisu eta Mikel Barandiaran, berriz, geroago hasiak, buruago izan ziren ondoko urtee-

Valle se entrevistaron con José Antonio Aguirre». Agirre eta biok joan ginen, ordea; B. del Valle gabe. Eta abar.

Hori guztia, ordea, ez da oso garrantzitsua. Eta badago artikuluan okerragorik.

Alde batetik ekintza militarrei buruz esaten dena. Badirudi ia-ia zer egin ez genekiela; edo Alderdi-koen aldekoak zirela ekintza gogorretara pasatzearen aldekoak,

bat botako dut: Jose Mari Kesada, anti-gutarra. Neronek sinistu nuen dena utzia zuela. Seguridade beharrak ez zigun beste biderik uzten! Adar militarrek behartu gintuen denera: bai izena aldatzera, bai adar politikoa eta adar militarra (mili-ak eta polimili-ak baino askoz lehenago) berretzera; eta, goitik behera, bi organizazio izatera. Hau guztia 1959-ko udan gertatu zen. Eta J.A. Agirre-ri 1959-ko San Inazio egunean eman zitzaion aditzera ETA izeneko organizazio berri bat sortua zela.

Ekintza militarretara pasako ote ginen eztabaida. Lehenago izan zen. Eta egia da batzuk gandsimoaren tentazioa ezagutu genuela: Santamariak badaki honen berririk, eta adiskide handia zuen Jean Goss-ek ere bai. Baina eztabaida hori geure artean izan ondoren (1959-aren inguruan, oker ez banago), «seigarren adar» hori sortzeko erabakia hartu genuen. Eta geroztik ez zen eztabaidarik izan, eta ez ezer horrelakorik.

Eta adar gogor hori berezi genuenean (baina ez inolaz ere lehenago), adar politikoan ari ginenok, adar militarrekoen berri handirik ez izatea etorri zen. Baina ez azpikeriaz. Seguridade-beharrak eraman gintuen erabakiak denon artean ez hartzera. Ordura arte dena erabaki zen talde-lanez; eta Buruzagitzak ezagutzen ez zituen «bisitak» eta gainerakoak, gertzitatu eman daitezke.

Beste puntu harrigarri bat: ideologiari dagokiona. Ibarzabal irakurrita, horrelako arazorik ez zegoela dirudi: «Ekin, muy a pesar de las interpretaciones que se le han dado con posterioridad, no disienta del PNV en ningún aspecto de tipo programático». Eta hau ere ez da egia.

## ● «Estamos hasta las narices de las acusaciones de culturalismo. Los culturalistas dieron siempre la cara. En cuanto a Ibarzabal, parece que en su culturalismo sólo llega a utilizar el euskara para titular «Muga», una revista escrita en español».

«Ekin» talde hasi ginen gehienok, aurreko EIA-koak izanak ginen; eta EIA, Leyden-go elkartearen sartzeko behar zela, «apolítico y aconfesional» bataiatzen zen. Eta guk oso maite genuen hura. Santamaria-ren eraginez (Santamaria Maritain-en aldeko agertzen zen) Laiokotasunaren alde goguden betidanik. Eta oraindik oso gogoan daukat Eli Etxeberria-rekin izan nuen elkarrizketa bat: «El lema JEL es intocable. Si empezáis con esas cosas os vamos a cerrar todas las puertas». Eta horretan aurkitzen genuen Alderdia-rekiko baradera bat.

Sozialismoaren aldetik oso gutxi genehien: hau egia da. Baina 1958-ko oporreran (Apirilean gertatua, oso gaizki ez banabil) «Ekin»eko batzuk galdu genuen lan-postua; organizazioak, ofizialki, langileekin opor egitea erabaki zuelako. Ni nengoen lantegian, esate baterako, Agustín Gómez futbolari famatua (PC-koa) eta ni biok bota gintuzten. Eta gauza bera

beste barrutietan. Ez da asko. Baina gure joera zein zen erakusteko balio dezake. 1956-1957-an, ordea, gure «esizioa» zela, tentsio handia zegoen. Gu «komunistak» omen ginen. Eta, Murua-ren eraginez hein handi batez, ideologi-arazorik ezer ez esatea erabaki zen. Gure arteko batek esan ohi zuenez: «Hay que evitar que el Partido ponga en marcha su capacidad destructiva». Eta ideologi-arazoak ez aipatzea erabaki genuen.

1959ko udan ETA izeneko organizazio bat sortzeko erabakia hartu genuenean, ideologi-arazoa garbitzeko erabakia hartu genuen; eta dokumentuak aztertzen eta abar hasi ginen. Biltzarre Nagusi bat deitu behar zen ahalik eta azkarrenik, eta programa bat hautatu. Gure artean inork ez zuen dudan jarri joera sozialista izango zuen bide bat hautatu behar zenik.

Baina 1960-ko udaberrian Bilboko jendea erori zen (Benito del Valle barne), 1960-ko udan beste mordo bat Gipuzkoan, «Eusko Gaztedi»-ak izandako erorketa baten ondorioz; eta 1961-ko udan askoz ere gehiago, treinen arazoaren ondorioz. Horrela azal daiteke, eta ez bestela, ETA-k programa berezirik 1962-ko apirilera arte ez izatea.

Beste puntu harrigarri bat: Ibarzabal irakurrita gu ikaragarritzko «kulturalistak» ginen. Hona zer dion: «No creemos malinterpretar el pensamiento inicial de los hombres de Ekin si decimos que por su mente corría un plan de vasquización y culturalización generalizada del País». Hau guztia Ibarzabal-i zer zaion argi eta garbi esaten digu: «Era un modo más o menos honorable de rehuir el campo político».

Hots, hori ez da egia. Gainzarain behin eta berriz izana zen gartzelan, Benito gauza bera 1949an, gauza bera artikulua honen egilea 1950an, eta luzaz ibiliak ziren izkutaturik Larramendi eta beste. Denok ginen fitxatuak (seguru asko Ibarzabali sekula gertatu ez zaiona). Eta fitxatuta ginelako, eta politika egin nahi genuelako, hartu genituen seguridade-erabaki zorrotzak.

Gu euskaltzaleok ginen, hori bai; eta euskaldun berriak edo ikasiak ginen, denok. Eta uda zetorrenean baserrietara jotzen genuen, eta abar. Hau bai, eta euskararik gabe euskadik sentidurik ez lukeela esatea «kulturalismoa» dela esaten bazaigu, «kulturalistak» ginen eta gara. Eta Ibarzabal ez da: Ibarzabalek aski du «Muga» hitza euskaraz jartzea, eta dena erdaraz gero, den-dena. Baita erdaraz ari direnak Mitxelena, Lete, Artzallus eta «Aurtiz» bera direnean. Joera ezagutzen dugu, eta «Garaia»n ezagutu genuen.

ESB-an, eta «eladio» izandakoek sortu duten guztian, gertatzen den bezala. Eta hori «politika» baldin bada, gu ez ginen politikoak, eta gaur ere ez gara. Hau esatearen prezioa euskal politikatik bazterturik gelditzen baldin bada ere. Leporaino gaude, hain zuzen, «northern» horietaz. Gu Euskal Herriaren abertzaleak gara; baina Ibarzabal eta bere gogaideak ez dira. Ez gaur eta ez lehenago ere.

Ez ditut nik gartzelak eta atzerrialdi luzea «kulturalismo» horregatik ezagutu; eta ez ETA-ko besteek ere. Eta hauxe da gure ohorea.

Baina Euskadi guretzat Euskal Aberria da.

Baina harriagorik badago halere. Zeren Ibarzabal-en artikulua irakurrita, ETA «Servicios» delako horrek sortua baiturudi. Eta hau, benetan, gehiegitxo da.

Ez dut nik dudan jartzen «Servicios» horiek sartzen saiatu zirenik. Gauza bera esango nuke FLP-az, PC-az, eta beste askotaz. Nola ukatuko nuke bada nik ETA-n infiltrazioak izan direnik, infiltrazio horien egia frogatzen saiatu ondoren? Baina esaldi hau: «Nos atrevemos a afirmar que sin la ayuda prestada por Servicios, Ekin difícilmente hubiera podido desarrollar una auténtica organización», benetan gehiegitxo da.

Alde batetik egia ez delako. Gauza bera idatziko luke agian FLP-ko historialari ofizial batek: «Sin la ayuda prestada por Bordonaba, Leunda, Uresberueta, etc. ETA hubiera desaparecido». Eta gauza bera beste batzuk. Eta berdin idatz liteke agian: «Sin la ayuda prestada por el Departamento de Estado de USA a través de Pepe Mitxelena y Anton Irala, el PNV hubiera desaparecido». Nik, benetan, ez nuke horrelakorik esango.

Baina, gainera, zertan gara? 1957-1961 urteetan gu guztiok Komunistatzat salatzen gintuzten herriaren aurrean. Hots, orain, CIA-k sortua bide da ETA; eta Ibarzabali esker aurki entzungo dugu: «Eran agentes de la CIA». Eta ene galdera hau da: bata ala bestea?

Ibarzabal-en testuak ez gaitu aski argitzen: «Eli Etxeberria observa que la organización de Servicios apoya a los jóvenes de Ekin». Hots, «Esta organización - Servicios - mantiene estrechas relaciones con el Departamento de los EE.UU., organismo ante el que Antón Irala actúa como representante vasco». Eta aurrerago: «Ese viraje se efectúa principalmente en el grupo de Servicios, que se convertirán en un firme bastión anticomunista». Nola liteke, beraz antikomunistek «komunistak» laguntzea? Nola azal liteke horrelako hanka-sartzerik amerikarregandik?

«Ekin»ekoek ez genehien ezer Ajuria-guerra-Mitxelena istilu horretaz, eta gaur ere (nik behintzat ezer ez dakigu. Baina ETA-ren sorrera Alderdiaren barruko zatiketa gisa presentatzea, oso kontsolagarria izan daiteke «solo JEL basta» pentsatzen dutenentzat. Baina akats larri bat du: ez dela egia.